

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ostiral honetan irekiko da enpresetan webgune eta aplikazio berriak sortzeko laguntzak eskatzeko epea

Zenbatekoa bikoiztuko da aurten, 500.000 euro

Jueves, 21 de mayo de 2015

Bihartik aurrera, hilak 22, eta ekainaren 21 arte, Nafarroako enpresek [enpresetan IKTak sartzeko](#) eta [erakundeen arteko lankidetzarako](#) laguntzak eskatu ahalko dituzte aplikazio informatiko berritzaileak garatzeko.

[Nafarroako Aldizkari Ofizia](#)lean gaur argitaratzen den deialdiak (97. zenbakia, maiatzak 21), 500.000 euro aurreikusten ditu; kopuru horretatik, 370.000 euro, webguneak sortu, zaharkituta geratu direnak eguneratu edo merkataritza elektronikorako aplikazioak jasotako enpresa txiki eta mikroenpresetarako dira; 130.000 euro, berriz, enpresen eta erakundeen arteko lankidetzara-proiektuetarako aplikazio berritzaileak garatze aldera.

Xede horretarako iaz bideratutakoekin alderatuz, laguntzak % 100 handitu dira, eta % 50ean Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantzatzen ditu EGEF 2007-203 programa eragilearen bidez.

Nafarroako enpresen presentzia digitala eta haien merkataritza elektronikoaren aukerak hobetzeaz gain, laguntza horiekin Nafarroako webgune eta aplikazioak garatzen dituzten enpresak babestu nahi dira ere.

Lehen kasuan, diru-laguntzaren portzentajea gastuaren % 40 eta % 60 artean izango da, webgunearen ezaugarrien eta hari emango zaion erabileraren arabera: 3.600 euro, gehienez ere. Aplikazio berritzaileak garatzeko laguntzei dagokienez, enpresen lehiakortasuna hobetuko duten soluzioak sustatzea da kontua, merkatuan eskuratu ezin direnak. Aplikazioaren garapena kontratatzen duen erakunde-motaren mende izango da, eta baita programa garatuko duen enpresaren tamainaren mende ere, gastuaren % 20 eta % 70 arteko portzentajeekin eta 21.000 euro, gehienez ere.

Eskaerak telematikoki aurkeztuko dira, Nafarroako Gobernuko Interneteko atarian (www.navarra.es) aurkituko den formulario elektronikoaren bidez.